



Abaituerrota

etxebizitza

Aldacrak: Eskondueña
Ahozkoa: Eskonduna

“... el molino llamado Abaitua errotea radicante en dicho barrio de San Lorenzo... es de una vivienda, consta en su piso llano [de cocina], de un dormitorio y la sala del Molino y dos molien-das y cuadra además. El piso principal de tres dormitorios y pajar, y encima de estos desban, ocupa una planta solar de doscientos setenta metros incluso lo que ocupan sus tejabanas. Los antusanos de este molino miden ciento setenta y nueve metros cuadrados...”
DJE 4/86 or. (1878)



43° 11' 2"

2° 34' 18"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

XIX. mendetik dokumentatuta dugu *Abaitua* inguruko errota hau *Abaituerrota* (1859, BUA, izendegia) izendapenaz, nahiz eta 1857. urtean egindako eraikin-erroldan *Escondua* (1857, BUA, Viv) izenez ere ageri. Hala ere, XIX. mendetik hona sorturiko dokumentazioan *Abaituerrota* izan da formarik ohikoena. Aitzitik, auzotarren artean eta batez ere XX. mendearen bigarren erdialdetik gaur egunera arte, *Éskonduna* izan da ahozko formarik erabiliena.

Izenak dioen moduan, errota izandako baserria da, oraindik produkzio gunearen hainbat ele-

mentu kontserbatzen dituen. Hiru bolumenez osatuta dago eta U forma hartzen du guztiak. Oro har, harlangaitza erabili zuten hirurak jasotzeko eta harlandua, kantaletan. Errotari dagokion etxea erdialdekoa da eta honen bi bao harlanduz egin zituzten, atea eta gaineko leiho luzea, biak dinteldunak. Eskuma aldeko eraikinean ere beste leiho bi daude silarriez eginak, lehenengo solairukoa eta ganbarakoa, txikiagoa dena. Beste guztiak, XX. mendean berriztatu zutenean, zabaldu zituzten.

toponimia

Bizkaian ohikoa da etxe izenak oso luzeak izatea, luzeenak Euskal Herrian, lehenengo osagaia auzoaren izena izaten delako. Sarritan auzo izena hasieran etxe baten izena zen. Etxe bakarra egon zen eta bigarren bat eraikitzean zerbait bereizgarri gehitu zioten berriari eta gehienetan zaharrari. Denboraren poderioz auzoa sortu zen eta etxe guztiek zuten hasiera bera dute izenean. Hori bai, ahoz gehienetan bigarren zatia besterik ez da erabiltzen. Kasu honetan Abaitua auzoko errota dugu. Errota hitza gehiago jakiteko irakurri **Bekoerrota** izeneko sarrera Okango kofradian.